

**1. MAILA****2. MAILA****3. MAILA****4. MAILA****1.1.1. Hezkuntza-komunitateko eragileen beharrak eta itxaropenak aztertzea eta ikastetxearen ingurua analizatzea.**

Ikastetxe-mailako prozedurarik ez dago hezkuntza-komunitatearen eta inguruko beharrei eta itxaropenei buruzko informazioa biltzeko, edo oso urriak eta landu gabeak dira.

Zuzendaritzak oinarrizko prozedurak ezarri ditu, hezkuntza-komunitateko eragileren baten (ikasleak, irakasleak...) beharrak eta itxaropenak jasotzeko eta aztertzeko.

Ikasleen eta familien ezaugarriak ere (gizarte-heziketakoak, kulturalak, ekonomikoak, eta abar) biltzen eta aztertzen dira.

Azterketa hori ikastetxeko alderdi garrantzitsu batzuei buruzkoa da, eta alderdi horietako batzuek ikasteko eta irakasteko prozesuekin lotuta daude.

Zuzendaritzak hazkuntza-komunitateko sektoreen beharrak eta itxaropenak biltzeko eta aztertzeko prozedurak abian jartzen ditu erregularitasunez (bilerak, inkestak, balioespen-foroak, koordinazio-organoekin egindako bilerak, eta abar).

Testuinguruaren azterketa eta balioespena egiten da, bai ikasleen eta familien ezaugarriei dagokienez, bai ikastetxearen beste ezaugarriei buruz, bai beste erakunde eta eragileak aintzat hartuta (udalak, beste ikastetxe batzuk, enpresak, pertsonak, taldeak, eta abar).

Aintzat hartzen diren alderdien artean lehenetsuak dira ikasteko eta irakasteko prozesuekin lotuta daudenak (metodologia, ebaluazioa, eta abar) eta irakasleen antolaketari buruzkoak (koordinazio-organo nagusien eraginkortasuna, baliabideen esleipena...).

Eragileen beharrak eta itxaropenak koordinazio-organoen bidez jasotzeko eta aztertzeko antolaketan eta egituraketan ibilbide luzea dago, hezkuntza-komunitate guztiaren inplikazioarekin.

Protokoloak eta sistematizazioa ezarri dira, askotariko metodo eta iturriak baliatuta, urteko ohiko jardueraren parte direlarik.

Aldian behin, erabilitako prozeduren eraginkortasuna eta informazio-bilketak aintzat hartzen dituen alderdiak berrikusten dira, hezkuntza-erantzun egokiena planifikatzeko eta ikasleen oinarrizko gaitasunak hobetzeko.

Jardunbide egokiak partekatzen eta ikasten dira.

Informazioa biltzeko, harreman iraunkorrak daude inguruko erakundeekin eta beste eragile batzuekin.